

**GRAHAM WATSON** EUROPAKO LEGEBILTZARREKO LIBERAL DEMOKRATEN TALDEKO PRESIDENTEA

Bortizkeriaren aurkako borroka hitzetik hortzera dabilen honetan, Europako Batasunak onartutako lege eta neurrien oinarrian dago Watson Txostena, Graham R. Watson 45 urteko eskoziarrari ospea eman dion lana. Pat Cox bere alderdikidea Europako Parlamentuko presidente izendatu dutenetik, ELDR liberal demokraten taldeko buruzagia da.

Mikel Reparaz | BRUSELA

Londrestik Bruselara eta Bruselatik Estrasburgorako jauzian ezagutu dugu Graham Watson, Europako Batasuneko hiriburuan duen bulegoan. Spaak eraikina, bosgarren solairua. Watson jaunaren leiho zabaletik arratseko eguzki gorria sartzen da bete-betean, Cinquantenaire parke aldetik. Ez dira ohikoak horrelako egun argitsuak Bruselan. Bulegoan, ez argazki, ez oroigarririk. Horma garbiak eta egurrezko zorua. Watson Txostenaren sorleku aseptikoa.

■ **Bortizkeriari esker egin zara ospetsu.**

Beno, niri egokitu zitzaidan terrorismoari buruzko txostena prestatzea; Barne, Justizia eta Askatasunen batzordeko presidente bainintzen. Urtebete pasa nuen Europako Batasunak terrorismoaren aurkako borroka nola areagotu dezakeen asmatzen. Txostena joan den urteko irailaren 5ean aurkeztu nuen. Funtsean, nire idatziak gobernuei egiten zien dei, mugi zitezten, bat egin zezaten Europako terrorismoari aurre egiteko. Mahai bazterrean, ahantziarik leudeke oraindik ere nik idatzitako paper horiek guztiak, irailaren 11ko goiz hartan hegazkin haiek Estatu Batuetan erori izan ez balira. Horrek esnarazi zituen Europako agintariak.

■ **Irailaren 11ko gertakizunek eraginda ala ez, zure txostena dago Kontseiluak bortizkeriaren aurka hartutako neurrien oinarrian. Terrorismo delituaren definizioa, gutxieneko kartzela zigorrak eta atxilotze eta berehalako entrega agindua, besteak beste. Zer iritzi duzu onartutako horretaz guztiaz?**

Alde batetik, pozten nau Europako Batasunaren erreakzioak, horren agudo mugitu izanak. Izan ere, hiru hilabete eta erditan —oso azkar, beraz— hainbat lege eta neurri sortu da, terrorismoaren aurkako borroka eraginkorragoa egite aldera. Hala ere, triste da Estatu Batuetako atentatuek bultzatu behar izana pauso hori; Europako bi belaunaldik behintzat ongi ezagutzen baitute zer den terrorismoa. Horregatik, nazioartean Al Qaeda sarearen aurkako



EGUNKARIA

## «Bide militarrik oinarri hartuta, Espainiak ez du inoiz arazoa konponduko»

borrokan Estatu Batuekin bat egitea inportantea bada ere, pareko garrantzia du Europako herritarren ongizatea zaintzeak, eta, ondorioz, Europako Batasunean bertan dagoen terrorismoa behin betiko garaitzeak.

■ **Europa bertako taldeez ari zara?**

Ipar Irlandaz ari naiz; Euskal Herriaz, Korsikaz...

■ **Beraz, zuk zaku berean sartzen dituzu Al Qaeda eta Ipar Irlandako IRA edo talde leialistak, esaterako.**

Ez. Jakina badela ezberdintasun argia, agerikoa, bi indarkeria mota horien artean. Haatik, lotura franko ere bada. Erresuma Batuan, herritar guztiok txundituta gelditu ginen, egunkarietako argazkietan IRAko kideak Kolonbian, bertako terroristekin batera oihanean entrenatzen ikusi genituen. Argi erakutsi zuen Erresuma Batuan zein gertu dagoen terrorismoa bestelako krimen taldeengandik. Izan ere, talde terrorista guztiak elkar trukatzeko baitute

informazioa, ideiak, eta segur aski baita armak eta entrenamendua ere.

■ **Indarkeriaren aurkako borroka sutsuaren izenean ez al dago, alabaina, norbanakoen eskubideak bazterrean uzteko arriskua?**

Liberalok beti defenditu izan ditugu norbanakoen eskubideak. Egia da, sarritan, ekintza terroristak direla-eta erantzun azkarrare emateko tentazioa izaten dutela agintariak; Estatu Batuetako buruzagiek esaten dutena

egiteko tentazioa: «Beharbada, ohiz kanpoko egoera honi aurre egiteko, giza eskubideak murriztu behar genituzke; agian, epaitegi militarrek erabili behar genituzke». Baina nire iduriko, horrek indar gehiago ematen dio terrorismoari. Estatu demokratiko orok indarkeriari aurre egiteko legeak eta zilegi diren bideak hartu behar ditu.

■ **Baina Europako Batasunaren estradizio prozedura kentzeak berme juridikoak ezabatzen dituela salatu dute as-**